



3 UDALA

Ekaineko ohiko udalbatzarrean adostasuna nagusi

Ekaineko ohiko udalbatzarra izan zen asteartean. Hainbat proposamen eta mozio aztertu zituzten zinegotziek eta gehienak aurrera atera ziren udalbatzarreko ordezkari guztien oniritziarekin.



4-5 ELKARRIZKETA
Antoni Eleizegi erlezainarekin solasean

Antonio Eleizegik duela 30 urte jarri zituen lehen erlauntzak Urnietara bidean den Saltzate jaiotetxean eta gaur egun toki ezberdinetan ditu erleak, baserrian bertan, Elduaien eta Goiburun. Izan ere, toki bakoitzean ezin dira asko jarri, ez dagoelako denentzako adina lore.

Umetatik ezagutzen ditu Eleizegik erleak, bere aitonak eta birraitonak ere bazituzten eta. Barroa xomorroari eta Asiako liztorrari baino, belduerrik handiena fruta arbolei botatzen dioten intsektizidari die erlazainak.

Elkarlanean oinarritutako egitaraua

San Pedro jaiak bi txupinazo izango dituzte ekainaren 28an

Egitarau oparoa aurkeztu zuen Taxio Arrizabalaga zinegotziak Okendo plazan asteazkenean egindako agerraldian. Bertan izan zen ere Alaitz Mendizabal parte-hartze batzordeko burua jaietan parte hartuko duten herritar eta elkarreetako kideekin batera. Berrikuntzen artean, ekainaren 28an bi txupinazo egingo direla eta udalak hiru talde omenduko dituela, Jalgune, Danok Kide eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots.



Okendon egindako agerraldian herritarrak eta elkarreetako kideak izan ziren udaleko zinegotziekin batera.

Okendo plazan egindako agerraldian aurkeztu zen asteazkenean San Pedro jaietako egitaraua. Taxio Arrizabalaga zinegotzia arduratu zen hau aurkezteaz eta jaiak antolatzeko elkarte eta herritar ezberdinekin burututako elkarlana azpimarratu nahi izan zuen bereziki. "Bilatu dugu aurtengo jaiak inoiz baino parte hartzaileagoak izatea. Hau lortu dugu martxo eta maiatz bitartean burutu den parte hartze proiektuari esker".

Herritarrekin bilerak

Prozesu hau bi fasean gauzatu dela azaldu zuen Arrizabalagak eta honetan herritar eta elkarreetatik aktiboki parte hartu dutela. "Bilera hauetatik jasotako proposamenak erabili dira egitaraua osatzeko izan

ere jaiak herritarrenak direlako, herritarrentzat eta herritarrek eginak".

Elkarlan honen ondorio dira besteak beste, Sorgin Jaiak eta udalaren artean adostutakoa. "Bi jai ereduak integratu nahi izan dira egitarau honetan eta horrela bakoitzak bere ekimenak mantendu arren, Okendo plazako eszenatokia konpartitu egingo dugu". Txozna ere Okendon izango dute Sorgin Jaiak eta karpas Udaletxe berriaren atzeko aldean. Aldi berean, Okendo plaza jaietako erdi gune izatea nahi izan du aurtengoan udalak.

Hiru omendu

Aurtengo omenduak Jalgune elkarte bere 21. urteurrenean, Danok Kide elkarte 50 urtetan herrian egindako lan onarengatik eta Pirritx, Porrotx

eta Marimotots herriko pailazoak, "25 urtetako ibilbide honetan egindako lan didaktiko garrantzitsuagatik" dira.

Maketa lehiaketari dago-kionez, aurreratu moduan, "La sociedad de los tercios" taldeak eskuratu du lehen saria eta Lasarte-Oria saria beriz, "Hilotz" taldearentzat izan da. Azken hauen konzertua izango da ekainaren 27ean 22:30ean Okendon Sorgin Jaien baitan. Arrizabalagak ere esker oneko hitzak izan zituen aurkezpenean Uxune Iparragirre herritarrentzat bera izan delako jaietako kartelaren egilea.

Bitan botako da txupina

Aurten lehen aldiz bi txupinazo egingo dira ekainaren 28an. Lehena eguerdiko 12:00etan egingo da Udaletxetik eta hurren txupinazoa

izango da. Bertan Pirritx, Porrotx eta Marimotots omenduak izango dira txupina botatzeko arduradunak.

Arratsaldean, 19:00etan bigarren txupinazoa egingo da. Kasu honetan Okendo plazan izango da eta Jalgune eta Danok Kide elkarte kideek emango diote horrela hasiera ofiziala festari.

Egitarauan emakumezkoen herri kirolak eta Ostadarrekin batera, bereziki gazteei zuzenduta antolatu diren jokoak azpimarratu zituen zinegotziak. "Asko dira ekintzak eta asko ere elkarreetak euren gain hartu dituztenak beraz, benetan eskertu nahi nuke hauen lana".

Zinegotziak herritarrak festetan aktiboki parte hartzera animatu zituen giro hoberean herria murgil dadin egun berezi hauetan.

ALBA

KOOKAI
NAFNAF
VERSE

ARROPA DENDA

Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.:943 574450

Neure kabuz



Gorka Lasa

Oporrak bakean

Zutabe hau argitaratzerako, Saharako errefuxiatuen kanpamenduetan izango naiz.

Badira urte batzuk, Fronte Polisarioarekin elkar lanean, eta Euskal Fondoaren parte hartzearekin, boluntario lan talde batek "Oporrak bakean" izeneko ekimena aurrera daramala. Ekimen honek bi helburu ditu nagusi:

Lehenengoa, 6 eta 12 urte bitarteko haurrei uda Euskal Herrian pasatzeko aukera ematea da, uda sasoiaren basamortuko bero jasanezinetik aldenduz eta babestuz, eta honekin batera, elikadura gabeziaren ondorioz sorturiko kalteei mediku azterketen bidez aurre egitea.

Bigarrena, euren herriak pairatzen duen egoera lartzaren berri emateko bidea zabaltzea. Saharak 36 urte daramatza Estatu espainiarrrak Marokoren esku salduta utzi zuenetik. Urte guzti hauetan, etengabeak izan dira giza eskubideen urraketak. Bortizkeria, atxiloketak eta bortxaketak noiznahi eta nonahi jasan behar izan dituzte. Marokok zigorgabatasun osoz Saharako baliabide natural guztiak espoliatzen ditu, hala nola, fosfato meategiak eta arrantzarako oso aberatsa den kostaldeak.

Garrantzitsuen ordea, Marokok 1991n ONUK autodeterminazio erreferendumerako emaniko eskubiak ukatzean datza, eta honen aurrean Europako Komunitate Elkarteko herrialdeek ezizusiarena egitea.

Amaierarik ikusten ez zaion gatazka politiko honetan haurrak ditugu tarteko. Herrialde baten etorkizuna dugu ate joka, laguntza eske. Askori, mundu berri bat zabalduko zaie begien aurrean, ilusioa eta ametsa. Eta beste askori, ordea, ametsetako bidea amildegian bukatuko.

Euren herriaren egoera, zer ziren, zer diren, adorea eta kemena ahanzturan gera ez daitezten, Oporrak Bakean ekimenak bi herri hauen arteko elkartasuna sendotzen jarraituko du.

Zorion agurrak



Susana

Zorionak munduko erizain hoberenari! 30 muxu potolo kuadrillatikikiren partetik.



Iara

Zorionak gordita, guraso eta nebaren partetik. Muxu handi bat.



Naiara

Zorionak gure katutxo maiteari, lau muxu haundi! Aitaxo eta amatxoren partetik.



Olatz

Etxeko politenarentzat 9 muxu familiarren partetik.



Alaine

Zorionak printzesa! Bederatzi muxu potolo familiarren partetik.



Mirari

Zorionak zure 7.urtebetetzean gui lob yu!!!



Imanol

Zorionak! Ama, aita eta famili osoaren partetik.



Aitor

Zorionak! Ahaztuko ginela uste zenuen!!! Hurrengo ordu batekoa gure kontu.



Aimar

Zorionak zure hirugarren urtebetetzean. Hiru muxu handi Enaitz, ama eta aitaren partetik!

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Pisu alokatzen da. 4 gela, sukaldaga, sala, bainugela eta komunarekin. Bankuaren abala behar da. Harremanetarako telefonoa, 943 372 066.
- Garaje marra bat alokatzen da, Hipodromo etorbidean. 680674577

Lan-eskaintza

- Lasarte-Orian ileapaindegirako laguntzailea behar da asteburuetarako. 637 961 824.

Lan-eskariak

- Emakume gaztea eskeintzen da asteartetik ostiralera arratsaldetan lana egiteko, etxeko garbiketarako edo pertsonak zaintzeko. 650890354
- Lasarteko neska gaztea eskeintzen da udaran lana egiteko, umeak zaintzen edo klaseak emateko. Goi mailako titulazioa du eta begiralearena ere bai. 677823141
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak, haurrak edota zaharrak zaintzeko. Astelehenetik larunbatera lan egiteko prest eta interna bezala behar bada ere bai. Maricruz 608 731 170.
- Emakumea eskaintzen da adinduak zaindu, etxeko lanak egin edota bestelako garbiketa lanak

- burutzeko, interna edo orduka. Esperientziaduna eta paperekin. Harremanetarako, 608 131 170.
- Lan bila nabil, aurretik pintore, lorazain, ontziak garbitzen eta baserri batean aritu naiz. Harremanetarako, 638 273 950.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak edota zaintza lanetarako. Interna bezala lan egingo luke. Esperientzia eta erreferentziakin. Reina Cruz 686 620 145.
- Emakume lan egiteko prest etxeetan interna moduan edo bestela. Erreferentziakin eta lan eskarmendu handiarekin. Lidia 648 815 319.
- Emakume euskaldun bat eskaintzen da umeak edo adinekoak zaindu, eta etxeko garbiketarako goizetan. 943 365 038.
- Emakumea eskaintzen da adinduak zaindu, etxeko lanak egin edota bestelako garbiketa lanak burutzeko. Esperientziaduna eta paperekin. 629 871 605 Mirna.
- Proficiency titulodun ingeniari itzale batek ingeles eta matematika klase partikularrik emanango litzuzke udan. Maila guztiak. Harremanetan jaritzeko: 676 145 135
- 29 urteko emakumea eskaintzen da interna moduan edo orduka etxeko lanak egiteko. Pape-

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Victoria Flea Trotta, ekainaren 7an.



Heriotza

- Axun Jauregi Begiristain, ekainaren 10ean, 89 urte zituela.
- Maite Calvo Perez, ekainaren 10ean, 67 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 15 Rodríguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Larunbata, 16 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Igandea, 17 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Astelehena, 18 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Asteartea, 19 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Asteazkena, 20 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Osteguna, 21 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chucha, Kardaberaz 48
Hernani, Tel.: 943 551 793

- rabitu. Harremanetarako, 669 931 026.
- Neska eskaintzen da arropa liztatzeko. Harremanetarako, 602 517 575.
- Klase partikularrik euskara, ingelesa, matematikak, lengoia, etab. eskaintzen dira. Harremanetarako, 693 601 222.
- Obrako peoi, hoteletako garbiketa egiten, baseirriaren edo zama lanak egiteko gaztea eskaintzen da. Harremanetarako, 602 187 900, M.Afzaal.
- 16 urteko neska prest dago udan umeak zaintzeko. Eskarmendu handikoa eta konfiantza guztiak. Harremanetarako, 666 261 030 edo 606 803 366.
- Klase partikularrik emango nituzke. Lehen Hezkuntza eta DBH mailak. Udan, zein ikasturtean zehar. Harremanetarako, 600 798 353.
- Haurrak, pertsona adinduak edo garbiketa lanak egiteko emakumea eskaintzen da. Interna edo orduka lan egiteko. Harremanetarako, 690 127 821,

Bestelakoak

- Pisu alokatu nahiko nuke, Lasarte-Oria erdian. Harremanetarako, 602 187 900, M.Afzaal.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

UDALA

Aho batez onartutako proposamenak

Bilduk Nafarroako konkista eta Gernikako bonbardaketei buruz aurkeztutako mozioa izan zen onartu ez zen bakarra

Ekaineko ohiko Udalbatzarra izan zen asteartean. Hainbat proposamen eta mozio aztertu zituzten zinegotziek eta gehienak aurrera atera ziren udalbatzarraren oniritzi guztiarekin. Herritarrek ere hitza hartzeko aukera izan zuten.

Asteartean asko izan ziren ohiko udalbatzarraren landu zituzten gaiak eta bat izan ezik, beste guztiak aurrera atera ziren.

Horrela lehen puntua 2012ko ekitaldian kredituak aldatzeko bideratu diren espedienteen kontu eman zuten Estitxu Alkorta ogasuneko lehendakariak. "Aldaketak obra urgentek egiteko izango dira, hala nola, futbol zelaieko zelaia edo zahar etxeko lanak". Ondoren, Hiribuseko zerbitzua ematearen tasa onesteko proposamena egin zen eta guztiak, Marisa Zubirik izan ezik, ez baitzen udalbatzarrean izan, aho batez onartu zuten. Honi esker, Hiri buseko txartelak 60 zentimo balioko ditu.

Jarraian aztertutako gaia, Lasarte-Orian babes publikoko etxebizitzaren erregimena arautzen duen ordenantza aldatzeko proposamena izan zen. Alderdi gehienek baietza eman zuten eta PP abstenitu zen.

Honen bitartez egunkarrietan, zozketetan etxebizitza lortu dutenen zerrenda bakarrik argitaratuko da eta 1000 bat euro aurreztuko ditu Udalak.

Era berean, Andre Joakina-eneko udal haurtzaindegia Haurreskolak partzuergoan integratzeko prozesuari onepena eman zion Udalbatzarrak aho batez eta era honetara,

Udalak 145.000 euro inguru aurreztuko ditu urtean.

Bilduk bere aldetik, Nerea Sanchez zinegotziaren baja dela eta, batzorde informatibotuen dituen kideak aldatzearen inguruan kontu eman zuten.

Mozioak

Jarraian mozioen txanda izan zen. Udaleko talde sozialistak aurkeztutako bi mozio eta Bilduren beste bat eztabaidatu ziren.

Batetik talde sozialistak Udalak Europako parlamentu eta kontseiluak izendatutako zahartze aktiboaren urtea rekin bat egitea proposatu zuten eta alderdi guztiak bat egin zuten.

Era honetara, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak proposatutako ekimenak eta proiektuak egingo dira herrian eta gai honen inguruko politikak eta ekimenak sustatuko dira.

Bilduk ere mozioa aurkeztuko zuen, Nafarroaren konkistaren 500. urteurrenari eta Gernikaren bonbardaketaren 75. urteurrenari buruzkoa. Hau ez zen aurrera atera. Bilduk bakarrik bozkatu zuen alde, PSE-EE eta PP aurka agertu ziren eta EAJ eta LOHP abstenitu egin ziren.

Azkenik, PSE-EE zarata eta bibrazioak arautuko dituen ordenantza prestatzeko buruz



Asteartean egin zen Ohiko Udalbatzarrean hainbat gai jorratu ziren.

mintzo zen batzarrean. Mozioa aho batez onartu zen.

Aurretik, Hirigintzako batzorde buruak Nerea Sanchezek ordenantza berritzeko asmoa zegoela azaldu zuten, izan ere, gai hori dela eta, arazo eta kexa mordoa dago.

PSE-EEren galderak

Honela, galdera eta eskaerak egiteko txanda ireki zen eta, berriro ere, PSE-EE izan zen bakarra. Alderdi sozialistak batetik alderdi sozialistak eskatutako alkatearen dekretuen kopia noiz izango dituzten eta bestetik Aierruko loturaren eta N-1 errepidean jarri behar ziren zarataren aurkako pantailen proiektuak nola dauden jakin nahi izan zuten.

Idazkariak lan handia dagoela eta, dekretu horiek lan karga gehiago suposatzen dutela azaldu zuten.

Bestetik Nerea Sanchezek, Hirigintzako saileko buruak azaldu zuenez, Aierruko loturaren proiektuaren informaziorik ez duela azaldu zuten.

Eta zarata pantailen buruz, fase guztiak amaituak daudela eta urte honetan zehar Bidegik egin behar dituen urbanizazio lanak bakarrik geratzen direla aipatu zuten.

Lasarte

Eta azkenik, herritarrek haien kezka edo eskaerak azaltzeko aukera izan zuten.

Tarte honetan Ricardo Izagire herritarrek hartu zuen hitza eta idatzi bat irakurri zuten. Honetan, urte hauetan PSE-EEK egindako herriaren kudeaketa kritikatzeko gain, gure herriaren izena aldatzea eskatu zion Udalbatzarrari. Bere ustez, Lasarte-Oriak Lasarte bakarrik izan beharko luke.

EUSKARA

Euskara ikasleentzako laguntzak

2011-2012 ikasturtean euskara ikasten aritu diren lasarteoritarrek Udaleko Euskara Zerbitzuak ematen dituen diru-laguntzak jasotzeko aukera izango dute.

Eskaerak Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira bulego ordutegiaren barruan. Ikastaroa bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan egin behar da diru-laguntza eskaera.

Era horretan, Udalak eskura jarriko dituen eskaera orriak, eta zinpeko deklarazioak ereduak ere aurkeztu beharko dira. Bestalde, eskaerari erantsi beharko zaizkio laguntzak jasotzeko eskatutako agiri guztiak.

Argibide guztiak nahi izanez gero, euskarako zerbitzura jo daitezke, 943 376 184, edo Udalaren web-orrian kontsultatu.

MEREKATARITZA

Komunikazio eraginkorrerako ikastaroa

Basquetour-ek Anfritriones Proiektua martxan jarri du. Helburua sektoreko 2.000 profesional baino gehiagori Xehetasunaren Kulturaren Prestakuntza Plana eskaintzea da.

Proiektuaren barruan bi ikastaro daude. Lehenengo ikastaroa ekainaren 19an, arratsaldeko 15:00etatik 19:00etara eskainiko dute, "Komunikazio eraginkorraren ABDA: Hitzekoza eta ez hitzekoza".

Honetan, zerbitzua bezeroaren beharretara moldatzeko, hala nola, zein galderak egin behar diren edo keinuki irakurtzen irakatsiko dute.

Ikastaro hauen inguruan informazio gehiago edo parte hartzeko interesaturik egonez gero, aurrez izena eman behar da BEHEMENDI Donostialdea eskualdeko turismo lankidetzarako erakundean.

Telefonoz 656 705 243 edo posta elektronikoa erabiliz donostialdea@behemendi.org izen eman behar da. Hau osatzeko hurrengo datuak behar dira: izen abizenak, NANa, telefono zenbakia, posta elektronikoa, enpresa eta herria.

Antolatzaileek jakin arazi dutenez, ikastaroaren lekua inskripzioen arabera zehaztuko da. Gainera, Eusko Jaurlaritzak ehuneko ehuneko diruz lagundutako programa dela jakitera ematen du.

Krisiari aurre egiteko proposamena aurkeztu zen

Ezker abertzalea, EA, Alternatiba eta Aralarrek ezker soberanistaren proposamen sozioekonomikoren aurkezpena egin zuten asteazkenean, Manuel Lekuonan.

Aralarreko Ainhoa Beola eta Pavel Viñas ezker abertzaleko kidea izan ziren proposamenaren nondik norakoak azaldu zituztenak.

Lehenik, ezkerreko lau eragile politikoek landutako proposamena irekia dela jakitera eman zuten. Izan ere, Ainhoa Beolak adierazi zuenez, herriararren ekarpenak biltzen dituzte hitzaldietan eta beste eragileekin bilerak egiten ari dira haien iritzia jakiteko.



Jarraian, Beolak gaur egungo diagnostiko orokorra egin zuten. Europa eta Espainiako krisi egoera aztertu eta egun krisi sistemikoa dagoela azaldu zuten. Hau da, krisi ekonomikoaz gain, krisi ekologikoa eta krisi soziala ere daudela.

Honetatik ateratzeko, lau alderdi ezkeriarrek Euskal Herriaren burujabetza beharrezkoa dela aipatu zuten eta Eskozia jarri zuten adibide gisa.

Politikoki burujabe izan eta arlo guztietan garapen endogenoa eta solidarioa

egin beharko lukeela adierazi zuten.

Esate baterako, Euskal Herriko produktu edo zerbitzuak indartu eta sustatzea, Amalurra babestu eta lurzoru legea aldatzea, herritarrek ere hezitzaile izatea edo herrien arteko kohesioa bultzatzea dira ideietako batzuk.

Pavel Viñasek ideia horiek praktikan nola jarri azaldu zuten eta eskualde batzuetan ekintzak martxan daudela aipatu zuten, hala nola, Tolosaldean haien produktuak sustatzen hasi direla.

Amaieran hurbildu ziren herritarrek galderak eta haien iritzia emateko aukera izan zuten.

Antonio Eleizegi Etlazaima

“Erlea langile aparta da”

Azken 30 urtetan zaindu ditu erlauntzak Antonio Eleizegik ■ Kanpotik ekarritako erleak baino bertakoak hobeak direla dio ■ Asiako liztorra ugaldu delako kezkatu da

Antonio Eleizegi lasarteoriarrak ez die erleen ziztada desatesqimet beidurrrik eta mingsarririk badira berriak, zalelotsun honek harrapatuta dauka. Uda berrian egun osoa ematen du Umietan bidean den Salizate baserrian lanean. Bere birritarionak bazuzkan erleak; atonarik eta osabak ere bai. Antonio Olaskoagarekin ikasi zuen erlauntzatu, Valvanerako monastegira ere joaten zen hango fraileekin erleen bereizitasunak ezagutzera eta 30 urtean insekto langile haren inguruko jakituria handia bildu du. Guri hainbat bitxikeria kontatu dizkigu.



Jon ALTUNA TZA

Saltzate baserrian, Elduainen eta Umielesko Couburun, leku ezberdinetan dauzka erlauntzak Antonio Eleizegik, etxerako ezia, agiztaria, propolea eta polena ekiztatu ditu eta eskutu eskura banatzen ditu adiskide-eguztanen artean.

Babesteko jantzia eta kea ezinbestekoak dira erleekin kaxan. Uda berriatik aurrera, urtean zehar, balena hala ere, irratia eta loeren bantua (pokena) erduan hasten dira erlegorabehera: “denboraren ekin gorputza jarri egiten da. Baserrian bi edo hiru egunetan egoten zen handituta. Geroera konturatu nintzen momentuko minia izanzen nola, besterik ez”.

Nola ikasi duzu erlauntzatu? Baserrian umetarik ezagutu dutu erleak. Txiki txiki, bitxigurre ditona zenak zaintzen zuten eta bere aurrekoak erleak. Lehen la baserri guztietan ziren ziren, baina, zainzako denborarik ez eta galdutuz ziren hemen. Zazpi-zortzi urtean ez zen erleik izan Salizate. Niri beti asko gustatu izan zaizkit animaliak; beti urtean nuen gogoa eta lagun batek esanda animatu nintzen.

Era onduak harapatuta... Lasarren bizi zen, Antonio Olaskoaga alarrik presatu eta leku zirkulatu lehendabiziko erleak eta bi erlauntzak ezia gehiago edo gutxiago. Normalan erlauntza behin jasozen da ezitia irailaren baina posible da maiatza inguruan yout bat jarzea ere. Baserriari zeharrek ezaten zuten Sumielaletako libelaren bildu behar zela ezia.

Zain leku da egokia erlauntzak jarreko? Hemen onena mendi aldea da. Akazia, gaztama eta larra dauken lekuan onak dira. Baserriaren erlekin ezti osoa egiten dute erleak.

apala, zekien gutzia azalzeko prest egoten zen beti. Asko lagundu zitidan. 1985. urtea izango zen. Gero liburuetatik ere asko ikasi dut, pikkanaka pikkanaka.

Zenbat erle izaten dituzte? Erlauntzek bere zikloa dute urte guztian. Bakoltean erleak 10.000 erle geliditzen dira kaxan. Uda berriatik aurrera, loeren ura, lorezti edo nekazaziztada” jasaten ditu urteko erleak erduan hasten dira erlegorabehera: “denboraren ekin gorputza jarri egiten da. Baserrian bi edo hiru egunetan egoten zen handituta. Geroera konturatu nintzen momentuko minia izanzen nola, besterik ez”.

“Gurin arte, beidur handiena inisektizidari diot, duela bi urte, ordu pare batean, erlauntza batzuetako erle guztiak hil zitazkidan”

da. Horretarako arrautzarik dagoen begiratuza nahikoa da. Eregrina ahuta bada, beste baten inisektizidatu ditua bien artean elkarriusena gertatzen da. aurrerako. Matatzean erlauntzen kaxa eta abaraskak jarzen dira eta gero irailaren izaten da lanik gehiena, ezia jaso, abaraskak garbitu eta abar. Barroerentzako tratamendua ere irailaren egiten dugu. Cero urritik martxorra ez dute lanik ematen.

Lekuaren arabera ezti ezberdina egiten da? Bai, oro har, hemen mila lorea kumea jaiotzen da. Erle horrek, udan, 40 eguneko bizitza izaten du. Eregrina eguneko bi mila arrautza erretuko gai omen da, baina bi hilabetez tena hil egingo dira eta beraz, etengabe segi eta jarri arautu behar du arrautzak jartzen.

Eza zenbat ezti ematen du? Erlauntza normal batean erle urte on batean, batzuek beste urte on dela esatera ezteko. Gehien gehiena 40 bat kipo jaso dut kaxa bakolteko. Erlauntza normal batean jasozen da ezia gehiago edo gutxiago. Normalan erlauntza behin jasozen da ezitia irailaren baina posible da maiatza inguruan yout bat jarzea ere. Baserriari zeharrek ezaten zuten Sumielaletako libelaren bildu behar zela ezia.

Zain leku da egokia erlauntzak jarreko? Hemen onena mendi aldea da. Akazia, gaztama eta larra dauken lekuan onak dira. Baserriaren erlekin ezti osoa egiten dute erleak.

“Erleak asko ugartzen dira baina ez dira asko bizi. Udalberri eta udan, lanean ari direnean, 40 egun. Gero batzuek udakeneik udalberria bihurtan irauten dute”

Orain arte bektur handiena eman dirana inisektizidatuta, duela bi urte ordu pare batean erlauntza batzuetako erle guztiak hil zitazkidan. Ingunan fruitu arbolak dituzten baserriarekin hitz egin nuen, eta laz ez nuen arazorik izan, baina aurtun ere bektur dizez nago.

Era bestalde, liztor famatuarekin kezkatzen hasita nago, badira bi urte homen azalzenen hasi zirela. Saiatu naitz baina ez dut inguruan habirik aurkitu.

Zengatik dauzka erlauntzak leku ezberdinean? Toki bakoltean asko ezin dira eduki. Gipuzkoan bektur ez dagoelako denentzat adina lore.

Txingurrik ezala erleak oso langileak dira, ezta? Bai esatilo beretsok dira. Erleak inisektizidatu ditua bien artean elkarriusena gertatzen da. aurrerako. Matatzean erlauntzen kaxa eta abaraskak jarzen dira eta gero irailaren izaten da lanik gehiena, ezia jaso, abaraskak garbitu eta abar. Barroerentzako tratamendua ere irailaren egiten dugu. Cero urritik martxorra ez dute lanik ematen.

Horiek guztiak ikusi egin al dituztu? Bai, eta ikusgarriena kantita da, oso polita. Lantzatean erlauntza dituen “erlauntza” erleak. Ezti apurtxo bat utzi behar zaie erleei megurako, oso inportantea da hori eta ez dago haragotzen.

Ezta ateratzeko, abaraskak erleak gabe etxera eramanez, argiztazko zigilua labanarekin kendu, zentrifugatzailean laumaka jarri eta bentan jasozen dugu. Hau hotzak hasi baino lehenago egin behar izaten da, behin urrian, ona egiten ez badu, ezia kristal bihurtzen hasten da, loditzen eta behin lodituta abaraskatik ezin da ateratu.

Zenituzk dira ezitigileen arrazoi handienak? Barroerentzako asko ikaratu ginen, arkaikusoa bezalako xomorroki bat da, txiki txiki, Horiek ez badituzte egiten ez tozaren aurrean, negua zer megurako pasatu duten eta erlegorik dagoen begiratu behar dute egokiena.

Elkarrizketa osoa txinbarri.info webgunean



Hib handiak arbolaren egiten dituzte, 20.000 litroan zain.



Julian Urkioa Bematzek ingurura aurkitu zuen liztor habiarik. Aurtun biki bai jaso di. Sasoetan liztorrean, apul baten zain.

Julian Urkioa Gipuzkoako erlauntzen lehendakaria

“Sasoetan aurkitu dugu Asiako liztorren habi bat”

Izozgailuan gordeta dauka entomologoak liztorren erregina aztertu ahal izateko

Julian Urkioa Gipuzkoako erlauntzen lehendakaria bi bidetatik ari da Vespa Velutina Asiako liztor eraldioen aurka, batetik erakundeak laguntza eskatzen du, liztorrak trapnara erakarrirako dituen feromonak aurkitzeko ikerketak hasteko, eta besterik trapnaka jartzen ditu liztorrak banan-banan harropatzeke edota habiak bilatu eta deuseztatzeko.

Eusko Jaurlaritzari duela bi urte eskatu zioten erlauntzari 140 ikerketa bai probatu dugu. Hemenai eta baina ezetzko eman zuten. “Aurtun berriro hiru esakera orokor egin gizekin: batetik, liztorea espezie ezotiko eraso-tzaile izendatzea, bigarrenez, liztorrak erleei eragiten dien kaltearen balorazioa egin eta gero erlauntzak koptentzazteko azarazteko, liztorren feromona espezioko diru laguntza raldi-jaiotzako bakoitzean eskatzen ginen. Jaurlaritzak, 20.000-30.000 liztor sortuko diru erregina bakoitzetik, ateratzen erabilzen ditugun hauspoekin joango gara. Gipuzkoako 536 bazkideentatik 80 joaten bagara kontentuko emango nintzake. Bizkaitik eta Arabatik beste 80 joango gonairek” kontatu digu Julian Urkioak.

Bien bitarrea trapnaka erabiltzen dituzte? Feromonen erabilera da feromonaren erabilera ditugun bitarrea denetik sarzeta da erleak, bertako liztorea edo Asiako Velutina. Ardo ziroa, garagarbia eta arandano ziroa,

debelalaz tailleres

Nere tailerra

kaltatefa, prezioia eta zerbitzu guztiak

AUTOENTZAKO ZERBITZUA INTERGRALA

Oria etorbidea 4, 3. lokala • Lasarte-Oria
Tel.: 943 366671 • www.debelalaz.com



Julian Urkioa Bematzek ingurura aurkitu zuen liztor habiarik. Aurtun biki bai jaso di. Sasoetan liztorrean, apul baten zain.

Julian Urkioa Gipuzkoako erlauntzen lehendakaria

“Sasoetan aurkitu dugu Asiako liztorren habi bat”

Izozgailuan gordeta dauka entomologoak liztorren erregina aztertu ahal izateko

Julian Urkioa Gipuzkoako erlauntzen lehendakaria bi bidetatik ari da Vespa Velutina Asiako liztor eraldioen aurka, batetik erakundeak laguntza eskatzen du, liztorrak trapnara erakarrirako dituen feromonak aurkitzeko ikerketak hasteko, eta besterik trapnaka jartzen ditu liztorrak banan-banan harropatzeke edota habiak bilatu eta deuseztatzeko.

Eusko Jaurlaritzari duela bi urte eskatu zioten erlauntzari 140 ikerketa bai probatu dugu. Hemenai eta baina ezetzko eman zuten. “Aurtun berriro hiru esakera orokor egin gizekin: batetik, liztorea espezie ezotiko eraso-tzaile izendatzea, bigarrenez, liztorrak erleei eragiten dien kaltearen balorazioa egin eta gero erlauntzak koptentzazteko azarazteko, liztorren feromona espezioko diru laguntza raldi-jaiotzako bakoitzean eskatzen ginen. Jaurlaritzak, 20.000-30.000 liztor sortuko diru erregina bakoitzetik, ateratzen erabilzen ditugun hauspoekin joango gara. Gipuzkoako 536 bazkideentatik 80 joaten bagara kontentuko emango nintzake. Bizkaitik eta Arabatik beste 80 joango gonairek” kontatu digu Julian Urkioak.

Bien bitarrea trapnaka erabiltzen dituzte? Feromonen erabilera da feromonaren erabilera ditugun bitarrea denetik sarzeta da erleak, bertako liztorea edo Asiako Velutina. Ardo ziroa, garagarbia eta arandano ziroa,

debelalaz tailleres

Nere tailerra

kaltatefa, prezioia eta zerbitzu guztiak

AUTOENTZAKO ZERBITZUA INTERGRALA

Oria etorbidea 4, 3. lokala • Lasarte-Oria
Tel.: 943 366671 • www.debelalaz.com

LABURRAK.-

Bola jokalarien denboraldi txarra

Ostadar SKT-ko bola-joko taldeak ez du denboraldi ona egin aurten.

Josean Monteseak aipatu digunez, nahiz eta Joxean Lasak Gipuzkoako txapelketan 10. postua lortu, taldeak ez du aurten emaitza paregaberik eskuratu.

Adierazi digunez, Charo Galan herritarra Gipuzkoako txapelketan aurreko postuetan sailkatu ahal zen baina gai pertsonalak medio ezin izan zuen parte hartu.

Honetaz gain, bola-jokoa trebatu nahi den edonork taldeko atek irekiak dituela jakitera ematen du. Horretarako Ostadarreko egoitzara edo bolatokia hurbildu behar dira interesatuak.

Era berean, jaietarako haurren eta helduen bola-joko eta toka txapelketak antolatzen ari direla ere aurreratu du.



Emakumezkoen nazioarteko futbol partida

Ekainaren 23an, 16:30etatik aurrera, Donostiako Anoeta zelaiari jokatu den Euskal Herriko eta Eslovakiako emakumezkoen Seleksioen arteko partidara joateko sarrerak Arkupe tabernan eskuragarri daude.

6 urte azpiko haurrak doan sartu ahalko dira, 6 eta 14 urteko gaztekoen sarrerak 5 euro balio du eta helduek 10 euro ordaindu behar dituzte.

Nahiz eta partidara ez joan, egun osoan zehar, EH Kirola, Esait eta Kontseiluak antolatuta hainbat ekitaldi izango dira Anoetako futbol zelaiaren inguruan, hala nola, kantaldiak, Irrien lagunen jolasgunea, Txan Magoa, DJ Bull...

Ostadar SKT-ko futbol eskolako izena ematea

Ostadar K.F. jakinarazten du, Futbol Eskolan izena emateko epea ireki dela.

Futbol Eskolan hurrengo denboraldian egon nahi duen haurrak baldintza hauek bete behar ditu: Buruntzaldeko bazkidea izatea; Eskola Kirola egitea, 2004, 2003 edo 2002. urtean jaiotakoa izatea edo Lasarte-Orian bizitzea.

Eskolako arduradunek iaz Futbol Eskolan egon ziren neska eta mutilak eta Ostadarreko bazkideek lehenetsuna dutela jakinarazi nahi dute. Era berean, plazak mugatuak direla ere azpimarratzen dute.

Inskripzioa ekainaren 22a bitartean egin ahalko da, Ostadarreko egoitzan, 18:00etatik 20:00etara.

TENISA.-

Lasarte-Oriako txapelketa martxan

Uztailean zehar jokatu da txapelketa Kirol gunean

Lasarte-Oriako tenis txapelketaren III. edizioa antolatu da. Lehiaketa uztailean zehar jokatu da Michelingo kirol guneko pistetan. Izena ematea irekia dago eta eskualdeko tenis jokalariek ere parte hartu dezakete.

Nerea EIZAGIRRE

Hirugarren urtez, Lasarte-Oriako Tenis txapelketa jokatu da. Lehiaketa Lasarte-Oriako, zein lurraldeko tenis jokalariei dago irekia eta finala uztailearen 20an izango da.

Gauzak honela, tenis zale-tuek uztailearen 2tik aurrera, Michelingo kirol guneko pistetan hainbat partida ikusteko aukera izango dute.

Txapelketa

Antolakuntzako kideek jakitera eman dutenez, txapelketako koadroa 32 jokalarik osatuko dute.

Partidak hiru set-era jokatuko dira eta beharrez gero, tie-break-ak jokatu dira. Honela, jokalariek bi set irabazi beharko dituzte partidaren garaile izateko.

Norgehiagokak astean zehar astelehenetik ostiralera



Uztailearen 2tik aurrera, astean zehar, txapelketako partidak ikusi ahalko dira.

jokatuko dira, arratsaldeko 17:00etatik 21:00etara, Michelingo kirol gunean. Uztaileak 20an finala eta 3. postua erabakitzeko partida jokatuko dira.

Honetaz gain, antolatzaileek adierazi dutenez, finalaren egunean txapelketan parte hartu dutenen artean sarien zozketa egingo da.

Lasarteoriatarrik ez garaile

Azken bi urteetan, lehiaketa hainbat herritar izan dira, baina ez dira finalera iritsi.

Tenis txapelketako lehen edizioan, J. M. Muñoz Baroja eta Abel Hernandezek jokatu zuten eta Muñoz Baroja izan zen garaile.

Iaz Agustín Quintana azpeitiarra izan zen txapelketa eta Iñaki Artano andoaindarrak lortu zuen bigarren postua. Lehen herritarra, Santi Lorenzo izan zen eta hirugarren postuan amaitu zuen txapelketa.

Izena ematea

Izena eman nahi duten jokalariek lasartenis@hotmail.com helbidera bidali behar dituzte hain datuak.

Honetaz gain, 12 euro ordaindu behar dituzte inskripzio kontzeptu bezala.

Datuak bidaltzeko azken eguna ekainaren 28a da.

Informazio gehiago nahi duenak, lasartenis.com orrialdean eskura dezake.

KIROL AGENDA.-

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 16

MOSSO OROIMENEZKOA, FINALERDIAK

Michelingo kirol gunea

11:00etan, Txindoki-ISU Leihoko

12:00etan, Buenetxea-EI Punto

Urruzola *Alebinak B*

Adrian Apaolaza-Eneko Ortiz

Infantilak

Agus eta Arteaga-Mieltxo eta

Etxezarreta *Beteranoak A*

Mikel Izagirre eta Floren-Juantxo

eta Kiki *Beteranoak B*

Manex Martirikorena eta Iñaki

Urruzola-Julen Galan eta Jokin

Beloki *Benjaminak B*

Jon Martin eta Xabier Uli-Naroya

Saizar eta Eneko Gomez *Alebinak A*

Julen Goenaga eta Ibai Izagirre-Ane

Sanchez eta Itsaso Contreras

Alebinak B

Asteazkena 20

SANTA ANA TXAPELKETA

Loidi-Barrengo pilotalekua

18:30ean, Iñigo eta Carlines-Begiristain anak

19:15ean, Galdos eta Izeta-Goiko eta Azkona

20:00etan, Iñaki eta Joserra-Imanol eta Ander

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 16

Zarautz, 09:30ean

Bazpi txirrindularitza eskolako eta

herriko jubentia XXIV Udaberri

Sarian parte hartuko dute.

Zumaia, 16:30ean

Bazpi txirrindularitza eskolako

infantilek Zumaia sarian parte

hartuko dute.

Urduliz, Bizkaia, 17:00etan

Bazpi txirrindularitza eskolako eta

herriko lehen urteko kadeteek

Euskadiko Txapelketan parte

hartuko dute.

ESKU-PILOTA

Larunbata 16

SANTA PEDROKO TXAPELKETA

Loidi-Barrengo pilotalekua,

10:00etatik aurrera

Urko Izagirre eta Endika Mertxan-

Unai Bardaji eta Eki de la Cruz

Aurrebenjaminak

Amets Encinas eta Iker Sarasola-

Mikel Ibisate eta Aitor Igarritz

Benjaminak A

Gorka Marcos eta Julen Alberdi-

Naroya Saizar eta Eneko Gomez

Alebinak A

Ibai Zamora eta Jon Ibisate-Larrun

Pikabea eta Jon Susin *Alebinak A*

Ibon Otxandorena eta Alex

Etcheberria-Hugo Iñigo eta Julen

Michelingo pilotalekua, 16:00etan

Intza-Gazte Leku **ERIALDEKO FINALERDIA**

Udaberri txapelketa, eskuz binaka, 2. urteko

alebinak

Igandea 17

SANTA PEDROKO TXAPELKETA

Loidi-Barrengo pilotalekua,

10:00etatik aurrera

Mikel Marcos eta Ugaitz Igarritz-

Urko Izagirre eta Endika Mertxan

Aurrebenjaminak

Unai Bardaji eta Eki de la Cruz-

Oier Sevillano eta Endika Izagirre

Aurrebenjaminak

Eneko Lanchas eta Anartz Garcia-

Mikel Ibisate eta Aitor Igarritz

Benjaminak A



PALA

Asteartea 19

SANTA ANA TXAPELKETA

Loidi-Barrengo pilotalekua

18:30ean, Xabi eta Mikel-Xabi eta Beñat

19:15ean, Pagola eta Jesus-Alain eta Txema

20:00etan, Xenki eta Munda-Potzu eta Gari

ATLETISMOA

Larunbata 16

Hernani, 18:30ean

Herriko hainbat korrikalarik XIV.

Azeri bila proban parte hartuko dute.

Igandea 17

Abaltzisketa, 10:00etan

Herriko hainbat korrikalarik

Txindoki bertikala mendi

lasterketan parte hartuko dute.

IGERIKETA

Larunbata 16

Paco Yoldi, Donostia, 10:00etan

Buruntzaldea IKT-ko infantil, junior,

promesa eta absolutuak Harri

Garmendia Sarian izango dira.

— Agenda —

Ostirala 16, Abend kafe-antzokia, 23:45ean



Rockabilly doinuez gozatzeko gaua

“Transistores 50” taldeak kontzertua eskainiko du gaur Abend kafe-antzokian. Jimmy Yarza, gitarra eta ahotsean, eta Juanjo Erentxu kontrabaxua dira taldea osatzen duten bi gazte donostiarrak. Pop, Rock eta batez ere, Rockabilly doinuak eskainiko dituzte bere emanaldian. Sarrera doan da.

ARTELATZ koop.-ko teknikari batek konpostagailuak aztertuko ditu, aholku praktikoak eman eta partehartzaileen zalantzak argituz.

Andoain

Zinea

BASTERO KULTUR-GUNEA
Larunbata 16, 19:30ean eta 22:30ean
 “Men in Black 3” filma eskainiko dute. Sarrera, 4, 50 euro. Gaztelaniaz.
Igandea 17, 19:30ean
 “Men in Black 3” filma eskainiko dute. Sarrera, 4, 50 euro. Gaztelaniaz.
Astelehena 18, 19:30ean eta 22:15ean
 “Men in Black 3” filma eskainiko dute. Ikuslearen eguna, sarrera 3 euro. Gaztelaniaz.

Musika

BASTERO KULTUR-GUNEA
Ostirala 15, 21:30ean
 “Sortuko dira besteak” Xabier Leteren omenezko kontzertu-ikuskiuna. Hainbat abeslari eta kultura eragile dira ekimenean. Sarrera, 15 euro.

NAFARROA PLAZA
Larunbata 16, 18:00etatik aurrera
 5. Andoaingo Rock Jaialdia ospatuko da.

Usurbil

Erakusketa
SUTEGI KULTUR-ETXEAN
Ekainaren 14tik 16ra
 Usurbil FT-ren erakusketa. 1976. urte-tik aurrera jaso diren argazki, artikulua, kamiseta... ikusteko aukera izango da.

Lasarte-Oria

Musika

EL BAR DE MAU
Ostirala 15, 21:00etan
 Sure&Chap taldeak bere lehen lana, “Amalgama”, aurkeztuko du. Jarraian, Jotamayuscula dj-ak saioa eskainiko du. Sarrera + zuritua, 3 euro.

KARMENGO AMAREN KAPERA
Igandea 17, 12:00etan
 Alboka abesbatzak meza girotu eta ondoren, kontzertu txiki bat eskainiko du.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Astearte 19, 19:00etan
 Udal Musika eskolako ikasleek kurtso

amaierako lehen kontzertua eskainiko dute. Honetan instrumentu ezberdinak eta eskolako txikiak ikusteko aukera izango da.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Asteazkena 20, 19:00etan
 Udal Musika eskolako ikasleek kurtso amaierako bigarren kontzertua eskainiko dute. Zikloa amaitu duten ikasleei diploma emango zaie.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Ekaina osoa
 Endika Elizechearen “Garuna Lantzen Unibertsoan” marrazki erakusketa ikusgai dago.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Astelehena 18-Ostirala 22
 “Bila Hadi, Hamaika begirada Palestina Euskal Herritik” proiektuko argazki eta irunzkinen erakusketa ikusgai.

Bestelakoak

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Asteazkena 20, 19:30ean
 “Bila Hadi, Hamaika begirada Palestina Euskal Herritik” proiektuko diskaren aurkezpena egingo dute Argia aldizkariako Axier Lopez eta Arramazka herriko taldeko Aroa eta Aitzol Lasak.

ZABALETA AUZOA
Ostirala 15, 19:00etan
 Konpostgileen topaketa antolatuko da.

— Herritarren txokoa —

Sorgin Jaietako arropa salgai
 Badatzo aurten ere Sorgin Jaiak. Jaiak iritsi bitartean asteazken eta ostiralero Okendo plazan izango gaituzue arropa saltzen 18:30etatik 20:30etara

Odola ateratzea
 Hilabete honetan odol ateratzea ekainaren 18an izango da. Ohiko den moduan Osasun Zentroan izango da arratsaldeko 17:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkaezina da eta odol falta dago!

Marrakzi eta pintura ikastaroa bukatzen da
 Lasarte-Oriako bizilagun elkarteak jakin arazten du bihar ekainaren 16an pintura eta marrazketa eskolak amaituko direla.

Sorgin dantzako entseguak
 Sorgin dantzarako entseguak hasi dira. Astearte eta ostegunetan, 20etatik 21:00etara, egingo dira entsegu irekiak eta hauetan ohi bezala haur zein helduek parte hartu ahal izango dute.
 Antolatzaileek azaldu moduan, eguraldi ona egiten badu, entseguak

Landaberri BHI-n egingo dira eta eguraldi txarra egiten duenean, Landaberri-Garaiakoetxea eraikineria pasako dira saioak.

San Juan bezperako soka-dantzarako entseguak
 San Juan Suan Soka-dantzan aritzeko entsegu irekiak amaitzeaz dira.
 Ekainaren 18an bilduko dira azken egun bezala pausuak ikasi eta dantzan trebatzeko.
 Entseguak Erketz EDT-k erabiltzen dituen Zumaburu eskolako lokaletan egingo dira guztiak 20:30ean. Hauetan nahi duten herritar guztiak har dezakete parte.

Iradokizunak Udalari
 Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko iradokizun orrialdea duela gogora arazten du. Orrialdea Udaleko harreran dago eskuragarri, baita baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere.
 Idatzi ostean, Udaleko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo iradokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da.

— Hemeroteka —

Duela 1018 ale

Elkarteek San Pedro jaiak antolatzeko aukera handiagoa zutelaren berri eman zuten TXINTXARRI-K, 1994ko martxoan.
 Udaleko jai batzordeak San Pedro jaiak antolatzeko prozedura aldatzea onartu zuen. Hainbat kezka zeuden hau indarrean jarriko zen edo ez.
 Honen bitartez, elkarteen proposamenak aurrera ateratzeko aukera gehiago zituzten. Izan ere, lehenik herriko elkarteek proposatutako ekitaldiak izango ziren kontuan eta hutsunerik izanez gero, Udalak antolatutakoak tartekatuko ziren. Gainera, elkarteek jai batzordean parte hartzeko aukera ere izango zuten.

Gauzak honela, elkarteek egitarau zabala eta parete hartzailea nahi izan zuten eta batzuk hainbat eskari egin zituztela aipatzen da artikuluan. Hala nola, Erketz EDT-ren urteroko emanaldia, Sendoki KB-k San Pedro egunean antolatzen zituen ekitaldiak (meza, omenaldia edo fandango eta arin-arin txapelketa) edo Ttakunen egitarau oparora.

Era berean, albistean aipatzen da, herriko hainbat talde Tximua Kz, Gazte Asanblada... batu eta Sorgin-jaien batzordea antolatu zutela. Eta hauek ere jaiak alaitzeko eta gozatzeko ekintza ugari antolatzeko gogoekin zeudela argitaratu zen.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

“Lasarte-Oria lantzen” sortu du udalak

- ▶ Udalak komunikazioa sustatzeko kaleratutako aldizkariaren izena da “Lasarte-Oria lantzen”
- ▶ Hiru hilabeteko maiztasunarekin jaio da eta gaur banatuko da lehen alea etxe guztietara

Udalak garrantzitsutzat jotzen du herritarrek udal informazioa lehen eskutik jasotzea horregatik sortu da “Lasarte-Oria lantzen” aldizkaria. 0 zenbakia bezala izendatu dute gaur etxeetara iritsiko den aldizkariaren lehen alea. Euskaraz eta gazteleraz jasotzen da informazioa eta kasu honetan jorratu diren gai nagusiak izan dira Hiribusaren zerbitzua, herriko auzoetan burututako parte-hartze prozesua eta aurrekontuak Estibx Alkorta ogasun zinegotziari egindako elkarrizketan. Hauetaz gain, herriko ospakizun eta ekimen ezberdinekin osatutako agenda dakar aldizkariak.

Maidar AZURMENDI



Haritz Iparragirre udaleko prentsa arduraduna eta Pablo Barrio alkatea aldizkaria eskutan duela.

Asteazkenean aurkeztu zuten udaletxean Pablo Barrio alkateak eta Haritz Iparragirre udaleko prentsa arduradunak hemendik aurrera udala eta herritarren arteko komunikazio tresna berria izateko helburua duen “Lasarte-Oria lantzen” udal aldizkaria.

Udal gobernua urtea bete du karguan eta aldizkaria urteurren honekin batera kaleratzeko ahalegina egin dela azaldu zuten agerraldian “governu honen helburuetako bat zen herritarrekin komunikazio zuzena lantzea eta hau izango da hori ahalbidetzeko beste tresna bat”.

Pablo Barrio alkateak udala eta herritarren arteko komunikazioa landu beharreko esparru garrantzitsua dela azpimarratu nahi izan zuen. “Aldizkari honekin udal informazioa bitartekari gabe jasoko dute Lasarte-Oriako herritarrek”. Hasiera batean alkateak esan bezala, “komunikazioaren esparruari ez genion behar beste garrantzia eman baina lanean hasi eta konturatzen zara Udaletxe barruan egiten den lan askoren berri ez dutela herritarrek”.

Atalaz sortzen joango dira aldizkariaren hurrengo aleetan eta funtsezkoa iruditzen zaie udal ordezkariak herritarren iritzia ere jasotzea. Horregatik “datozen aleetan herritarren txokoa sortu nahi da honetan eta herritarrei

euren iritzia bidaltzeko eskatzen diegu kontra azalean ikus daitekeenez”.

Maiztasuna erabakitzeke

Hasiera batean Haritz Iparragirre azaldu moduan aldizkaria hiru hilabeteko maiztasunarekin kaleratzea da udalaren asmoa baina “ikus nahi da hau horrela mantentzen den”.

Hau dela eta lehen aldizkari hau 0 alea bezala izendatua izan da. “Koloretako 16 orrialdek osatzen dute lehen aldizkaria baina aurrerantzean indarren eta emaitzen arabera joango da hazten orrialde kopurua eta maiztasunarekin”.

“Argitalpen honen bitartez udalaren ideien, asmoen, proiektuen eta kezken berri eman nahi zaie herritarrei” azpimarratu zuen alkateak. Honekin batera, argi adierazi nahi izan zuen udala osatzen duten alderdi guztien parte hartzea izango duela aldizkariak, “udalaren aldizkaria da, denena. Ez da udal gobernua osatzen dugunona soilik”.

Eduki mamitsua

Lehen alearen edukia dago-kionez, gai nagusiak herriko auzo guztietan burututako parte-hartze prozesuak, Hiribusaren zerbitzuaren nondik norakoak eta udal aurrekontuak dira. Azken hauek, Estibx Alkorta ogasun batzorde

buuari egiten zaion elkarrizketan jorratu dira.

Horretaz gain, hainbat herritarren iritzia jasotzen da udalak orain arte martxan jarritako parte-hartze prozesu ezberdinen inguruan. Galdera bera udala osatzen duten alderdi ezberdinei luzatu eta erantzunak jasotzen dira.

Aldizkariaren azken orrialdeetan herritarrek datozen hilabeteetan herrian egingo diren ospakizun eta ekimenak biltzen dituen agenda aurkituko dute.

Noski lehen orrialdeetan “Lasarte-Oria lantzen” aldizkariaren sorreraren inguruko aurkezpen bat jasotzen eta hemen helbide elektronikoa bat errazten da herritarrek aipatu bezala, euren iritzi eta kezka helaraz ditzaten, lasarteorialantzen@lasarte-oria.org

Hizkuntza politika

Aldizkariaren edukia euskaraz eta gazteleraz daude idatzita. Kasu batzuetan artikuluen itzulpenak egin dira eta beste batzuetan berri, erabiliko formula beste hizkuntzan edukia laborpenak gehitzea izan da.

Haritz Iparragirrearen hitzetan “gure artean ofizialak diren bi hizkuntzak erabilteza erabaki dugu udaleko Euskara Zerbitzuko teknikariak adostuta baina kasu batzuetan, hizkuntza gutxituaren,

mazioa euskaraz jasota ez dakitenei nolabait hau ikaste-ko behar hori sentitzea sustatu nahi dute udalek.

“Lasarte-Oria lantzen” udal aldizkari berria gaur banatuko da Lasarte-Oriako etxe guztietan. Horretaz gain, eskura izango da PDF formatoan udalaren www.lasarte-oria.org web orrian.

Gastuak neurtuz

Udalak sortutako aldizkariaren kostuengatik galdetuta, aldizkari hau udal barruan dauden baliabideekin egin dela azpimarratu nahi izan zuten. “Udalaren egoera ekonomikoa zein den ondo dakite herritarrek eta honakoak eragindako gastuak aurrekontuetan jasotako partida batekin ordaindu dira”.

Mota honetako aldizkari bat ere 2008an kaleratu zuen PSE-EEK gobernutik eta orduko kostuekin alderatuta “oso merkea izan da kasu honetan inprentako gastua”.

Herritarrek udalarekin komunikazio zuzena izatera animatu dituzte. Eta kezka eta iritzia helarazteko hainbat bide martxan daudela azpimarratu nahi izan zuten udal ordezkariak.

NAZAN ZERO EARRAUSKETA

AIRE GARDIAK BIRA NAZAN

EKAINAK 17

10:30 - 11:00 Musika eta eskulanak
11:00 - 11:30 Pirritx, Porrotx eta Marimotots
11:30 - 12:00 Bertsolariak, antzerkia, musika...
12:00 - 12:30 Mosaikoan kokatzea

12:30etan
Mosaiko erraldoia
DONOSTIA - SAGUES

BIRA NAZAN